

MENDIKO TXIRRINDOLA IBILBIDEAK

Joandako garagarrilaren 20an, txirrindolearen ganean ibilteko ibilbide barri bi zabaldu ebezan gure errian, au da, "Jesus Loroño" eta "Valentin Uriona" izenekoak.

Leenengoa (14km) Sollube mendiaren inguruan dago eta bigarrena (12,5 km) Jata mendiaren inguruan. Danetara 25 kilometro dira. Ibilbide bien artean, 14 km aurgoran eta beste 10 km aurbeeran egitekoak dira. Ezin leiteke esan, bada, ibilbideok ibilteko lar errezak diranik.

Ori bai, ibilbideei jarraituteko bear diran beste bide seinale imini dabez. Txirrindularitzearen bidez ingurugiroaren aldeko jokaerea indartu gura dabe. Bizkaiko Foru Aldundia izan da, Euskadi Fundazioagaz batera, orren guztiorren eragilerik nagusia.

Esan bear da be, ibilbideen esku informazioan leku izenen erabilera okerra egin dabela, arteztu bearrekoa, atan be.

SURF TALDEAREN BARRIAK

Udea berton dogu eta BSTk ekitaldi piloa eratu dau sasoi oneri bear dan bestekoa atarateko. Aor dozue zerrendea:

—Erriko OPENa: BST Bakio 2000. Sub-16, ncskak, Body Board eta Long Board kategorietan, garagarrilaren 15etik 16ra bitartean.

—Garagarrilaren 28tik 30era Portugaleko Santa Cruz urian klubon arteko txapelketea egin da eta an izan dira BSTko surflariak Bakioaren izenean.

—Irailaren 9tik 10era bitartean Udako Erriko Bigarren Txapelketa Idigia izango da. Txapelketa biotatik datorren urterako ranking-a egingo da.

Ekitaldi orreetaz gan, aurtan be surf ikastaroa dogu aretzan, garagarrilaren 3tik dagonilaren 25era arte. Izena emoteko Turismo Bulegora jo bear dozue. Gogoratu bear da BSTko kamisetak Turismo Bulegoan dagozana merke-merke erosgai. Eta azkenik, BSTren web orria: www.bakio.com, bertan dozue BSTren txokoa informazio eta argazkiz beteta.

Iniaki Martiartu

BAKIOTIK ATHLETIC-EN ALDE

Urtean zear Athletic-en ainbat partidu ikusi dodaz. Beren-beregi orretara urreratzen izan naz Bilbora. Bertoko Athletic-en aldeko "peña"ren bat? Ori bai, baldintza bakarra, jarduera osoa Mendebaldeko euskeran egitea.

Jo Pelotie

NAZINOARTEKO XIV. FOLKLORE JAIALDIA

Urtero lez eta goiko probalekuan, garagarrilaren 30ean, gaueko 10.30etan asita, Nazinoarteko Folklore Jaialdia izan genduan errian.

Bertan izan ziran Eskoziako Aberdeeneko eta Frantziako Nimeseko dantza taldeak.

Urtero lez be, bakiotar eta udatiarren erantzuna bero-beroa izan zan.

Atzeritarrak sano pozik joan ziran gure arterik.

Bakion ez eze, Gernika, Derio eta Forun be dantzan egin eben.

Iniaki Martiartu

DIAPORAMA EMONALDIA

Maiatzaren 19an, arratsaldeko 8:15etan, diaponaldia euki genduan Kultur Etxean. Namibiari buruz ainbat gauza interesgarri entzun eta ikusi aal izan genduzan Arturo Elosegiren eskutik.

JAIETAKO KARTEL LEIAKETE

Aurtongo jaietako kartel saritua Bilbokoa dan Marta Fernándezek egin izan da.

IKASLEEN ERAKUSKETE

Kultur Etxeko ikastaroetako ikasleen pintura eta esku lanak ikusi aal izan genduzan erakustaretoan bagilaren letik 16ra arte.

Laukizko

ABESBATZAREN ALBISTEAK

"Bakiori ereserkia" dalakoa bagiletik entsaietan dabil abesbatza, jo ta ke, datorren urtean erriaren aurrean leenengoz abestuteko.

Berbak Zeberioiko semea eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Filologia arloko irakaslea dan Juan Manuel Etxebarriak egin dauz.

Musikea, barriz, Goikoleako Aita Paskual Barturenak.

Abesbatzak dagonilean oporrak artu dauz, irailaren asikeran barrero ekinean asteko, udagoien eta neguari begira, atan be.

Iniaki Martiartu